



OROZKOKO UDALA

ZABOR-BILKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA *(1992/02/26ko 47 zb. B.A.O.ean argitaratua eta 2008/12/19ko 244 zb. B.A.O.ean, 2009/12/18ko 242 zb. B.A.Oea.n, 2010/12/17ko 241 zb. B.A.Oea.n eta 2019/12/17ko 240 zb. B.A.O.ean aldatua)*

1. ARTIKULUA. KONTZEPTUA.

1. Ordenantza honen xedeetarako zaborra honako hau da: normalean ohikoak diren bitarteko materialak zein giza-bitartekoak erabiliz (langileak, bilketa-kamioiak, etab.) zabor-bilketa zerbitzuaren bidez ken daitekeen edozein hiri hondakin solido.

2. Ordenantza honen xedeetarako ez da zabor kontsideratuko, eta ondorioz debekatuta geratzen da honako alor hauetatik sortutako hondakin solidoak kentzeko zabor-bilketa zerbitzua erabiltzea: ustiatze-fasean nekazaritza zein abeltzantza jardueretatik sortutakoak, hondakin erradioaktiboak, kutsatzaileak, toxikoak edo arriskutsuak, hondakin-urak eta kentzeko xedapen berezia ezarria duen beste edozein produktu. Era berean, debekatuta dago eraikuntza material, beira, tresna, hildako animalia, instalazio eta duen izaeragatik zabor-bilketa zerbitzuak dituen ohiko bitartekoekin kentzeko zein tratatzeko zaila den beste edozein elementurentzako.

2. ARTIKULUA. XEDAPENA.

1. Hiri hondakin solidoak edo zaborrak dauzkatenek edo sortzen dituztenek Udalaren eskuetan utzi beharko dituzte, Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan eta legeetan agindutakoaren kalterik gabe. Zaborrak utzi eta batzen diren unetik Udalaren jabetzakoak izango dira, eta hauek sortu dituztenek edo dauzkatenek ez dituzte zaborrok sor ditzaketen balizko kalteengatik inolako erantzukizunik izango, betiere Ordenantza honen baldintzetan ezarritakoa eta gainontzeko legezko arauetan ezarritakoa betez utzi badituzte.

2. Udalak, bere kabuz edo Toki Araubidearen legedian aurreikusitako moduen bitartez, kapitulu honen barne dauden zaborrak batzeko eta kentzeko obligazioa du, beti ere Ordenantza honen edo legezko beste arau batzuen arabera beste hondakin mota batzuen inguruan dituen obligazioei kalterik egin gabe.

3. Udalak zaborrak batzeagatik Ordenantza Fiskalek baimendutako tasak jasoko ditu.

3. ARTIKULUA. KENTZEAREN BALDINTZAK.

Lehenengo artikuluaaren definizioaren barne dagoen zabor mota, zabor-bilketa zerbitzuak ken dezakeena, zerbitzu honen esku utzi behar da, honako baldintza hauetan:

- a) Erabiltzaileak plastikozko zakuak erabili beharko ditu derrigorrez, eta modu egokian - korapiloen, soken, gomen, zinten... bitartez- itxita egon beharko dira.
- b) Zaborra udalak adierazitako lekuetan utzi beharko da, beronek ezarritako egunetan eta ordutegian. Alkatetzak Ordenantza honi aldaketarik egin barik aldatu ahal izango ditu zabor-bilketa egunak eta ordutegia, betiere zabor-bilketa zerbitzuaren aukeren eta beharrianen arabera. Udalak aldaketok bandoen bidez jakinaraziko ditu.



OROZKOKO UDALA

c) Debehatuta dago zaborra uztea ezarritako ordutegiz kanpo, adierazitako tokiak ez diren guneetan eta batzen ez den asteko egunetan. Zaborra egunero eta sarritan sortzen duten komertzio, taberna, etxebizitza, enpresa eta gainontzeko erabiltzaileek baldintza hauek zehatz-mehatz betetzeaz gain sortutako hondakinak 1.2. artikuluan debehatutakoak izan ez daitezen zaindu beharko dute.

4. ARTIKULUA. BEIRA

Beirazko ontziak, birziklatu ahal izateko, horretarako beren-beregi ezarritako edukiontzietan utzi beharko dira. Ontzien itxigailua ezin izango da edukiontzira bota, zabor-bilketa zerbitzuaren esku utzi beharko delarik. Era berean erabat debehatuta dago material birziklagarriaz egin gabeko kristalak edo bonbilla fluoreszenteak botatzea. Baita ere beirazko ontzia ez den beste edozelako hondakin edo zabor mota.

7 ARTIKULUA. ZABORTEGIAK

1. Zabortegeiak sortzeko udal baimena, beste arau batzuei kalterik egin gabe, beharko da. Edonola ere, baimen hau udalerriko Arau Subsidiarioetan ezarritakoaren menpe egongo da.

2. Debehatuta dago Ordenantza honetan ezarritako lekuetatik kanpo Orozkoko udal-barruti osoan zaborrak, tresnak, beira eta edozelako hiri hondakin solido uztea.

3. Debehatuta dago kontrol gabeko zerbitzuak eta baimendu gabeko zabortegeiak sortzea. Arau-hausleek kendu egin beharko dituzte, eta horrela egin ezean, ofizioz kenduko dira kostuak arau-hauslearen kargura izango direlarik. Edonola ere, eta hurrengo kapituloan ezartzen denari jarraiki, zigorrak egindako kaltearen arabera izango dira. Era berean, egindako kalteak kalte-ordaina ekarri ahal izango du.

8. ARTIKULUA. ZIGORRAK

1. Ordenantza honetan aurreikusitakoa urratuz gero zigor-espeditatea irekiko da, Administrazio Prozeduraren Legeak VI. tituluko 2. kapituluaren ezarritakoaren arabera.

2. Beste arau batzuetan ezarritakoari kalterik egin gabe, hiri hondakin solidoak batzeari eta tratatzeari buruzko 1975ko azaroaren 19ko 42. Legean ezarritakoa betez, Ordenantza honetan eta Legean ezarritakoa ez betetzeak ondoren adierazten den zigorra ekarriko du:

- a) 1.2 eta 7. artikuluen arau-hausteak 6,01 euro eta 601,01 euro artekoa.
- b) Ordenantzaren ezarritako gainontzeko arauak haustea 6,01 euro eta 30,05 euro artekoa. Berrero hautsiz gero 30,05 euro eta 150,25 euro artekoa.

Edonola ere, a) hizkiko arau-hausteak eskumenak dituzten Administrazioek zigortu ahal izango dituzte. Zigorrak Ordenantza honetan ezarritakoak baino handiagoak izan ahalko dira, dagokion araudian ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Hala ere, eta horretarako arrazoi edo zergatia justifikatuak daudenean, batzeko ohiko lekuetatik kanpo zaborrak uztea baimendu ahal izango da. Horretarako baimena udal honetako alkatetzan eskatu beharko da, eta honek ebazpen arrazoitua emango du. Era berean, udalak, kasua balitz, adierazitakoaren ordezkotzat batzeko erak aztertu eta ezarriko ditu.

AZKEN XEDAPENA



OROZKOKO UDALA

Ordenantza hau “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondorengo biharamunean sartuko da indarrean, eta 1992ko apirilaren 1etik aurrera hasiko da ezartzen.

ERANSKINA:

Tarifak:

1. Tarifa: Etxebizitza, denda, taberna, jatetxe eta industriak, errefusa daukien edukiontziak ondorengo kaleetan kokatuta daukiezanak: Burruzkale-Goikostatu, Ibaiondo, Ipergorta, Kolometa, Larrazabal, Untzueta, Andra Mari, Zubieta eta Kantarrena:

- Etxebizitzak: 27,09 euro/ hiruhil.
- Komertzioak: 49,12 euro/ hiruhil.
- Tabernak eta Jatetxeak: 70,93 euro/ hiruhil.
- Industriak eta Lantegiak: 50,76 euro/ hiruhil.

2. tarifa: Etxebizitza, denda, taberna, jatetxe eta industriak, errefusa daukien edukiontziak ondorengo kaleetan kokatuta daukiezanak: Torrezar industrialdea, Ibarra auzoa, Olabbarri, Torlanda, Presatxu, Torrezar, Unibaso, Jauregia, San Martin gurutzea, Usuluze, Isasi eta Aranguren:

- Etxebizitzak: 23,87euro/hiruhil.
- Komertzioak: 39,28 euro/ hiruhil.
- Tabernak eta Jatetxeak: 54,55euro/ hiruhil.
- Industriak eta Lantegiak: 40,46euro/ hiruhil.

3. tarifa: Etxebizitza, denda, taberna, jatetxe eta industriak, errefusa daukien edukiontziak ondorengo kaleetan kokatuta daukiezanak: Gallartu, Sautu, Zalaoa, Legorburu, San Martin, Urigoiti, Usabel, Ugalde, San Juan, Ansauri, Beraza, Garai, Egoitza, Bengoetxea auzoa, Murueta, Okeluri, Maiurtu eta Atxondo:

- Etxebizitzak: 21,01 euro/ hiruhil.
- Komertzioak: 31,42 euro/ hiruhil.
- Tabernak eta Jatetxeak: 41,46 euro/ hiruhil.
- Industriak eta Lantegiak: 31,96 euro/ hiruhil.

4. tarifa: - Diru sarrerak Bermatzeko Errenta eta/edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasoten daben elkarbizitza-unitate independenteak bizi diran etxebizitzak.

- Debaldeko tarifa.

4. zenb. tarifa eskuratzeko, interesauk eskatu egin beharko dabe eta baldintzak betetearen inguruko ziirtagiria ekarri beharko dabe.